

2026ko ekaina



Ahalera eta kalkoak

Ahalera subjektuaren gaitasuna edo aukera adierazteko erabiltzen da euskaraz. Hala ere, sarritan neurritz gain erabiltzen da, batez ere gaztelaniaren eraginez, eta horrek kalko okerrak sortzen ditu maiz. Ohikoak dira probabilitatea adierazteko, baita subjuntibozko perpausen ordain gisa edo geroaldiaren ordeztu ere. Horrelakoetan, badira euskaraz egokiagoak eta naturalagoak diren beste egitura batzuk. Jarraian, erabilera oker ohikoenak eta haien zuzenketak azalduko ditugu.

Pasa gaitezen, bada, Euskaltzaindiak jasota duena urratsez urrats azaltzera.

KONTUAN HARTZEKO ZENBAIT GOMENDIO:

Beharrezkoa ez denean

Batzuetan, ahalerarik gabe ere esanahia argi geratzen da.

- Mendi honetatik paisaia zoragarria ikus **daiteke**. ***
- Mendi honetatik paisaia zoragarria **ikusten da**.

Ahalmena eta gertagarritasuna nahastean

Ahalmena ('gaitasun' modura ulertuta) eta *gertagarritasuna* (gerta litekeena) ez bereiztetik dator okerra. Lehenak subjektuak duen gaitasuna edo ahalmena adierazten du, eta horri dagokio berez aditz-modua; bigarrenak proposizio batek —hiztunaren ustez— egia izateko edo gertatzeko duen probabilitatea adierazten du, eta probabilitatezko moduak dagozkio: *litekeena da*, *antza denez*, *omen...*

- Ordutegia berriro aldatu dutela-eta, aztertzailleak haserretu **daitezke**. ***
- Ordutegia berriro aldatu dutela-eta, **litekeena** da aztertzailleak haserretzea.
- Arratsalderako, dena den, han-hemenka euri-zaparradak izan **litezke**. ***
- Arratsalderako, dena den, **litekeena** da han-hemenka euri-zaparradak izatea.

Erlatibozko perpausetan

Ez da egokia ahalera erabiltzea gaztelaniazko subjuntibozko erlatiboen kalko gisa.

- Gerta (ahal) **litezkeen** kalteak antolatzaileak ordainduko ditu. ***
- Kalteak, **halakorik izanez gero**, antolatzaileak ordainduko ditu.
- Aurkez (ahal) **litezkeen** hautagaiek eskubidea izango dute ***
- Aurkezten **diren** hautagaiek eskubidea izango dute.
- Hautagaiek, **aurkeztuz gero**, eskubidea izango dute.

Geroaldian

Eskaerak edo galderak leuntzeko, sarritan ahalera erabiltzen da; euskaraz, ordea, geroaldia da aukera naturalagoa.

- Ireki **diezadakezu** atea? ***
- Irekiko **didazu** atea?



Ohiko erdarakadak



✗ **Irabaztea baino aritzea da helburua.**

✓ **Irabaztea baino gehiago/areago aritzea da helburua.**

✗ **Hondartza baino, mendia gustatzen zait.**

✓ **Hondartza baino gehiago, mendia gustatzen zait.**

✗ **Sentimenduei baino emozioei egin behar zaie jaramon.**

✓ **Sentimenduei baino gehiago/areago emozioei egin behar zaie jaramon.**

baino ≠ baino gehiago

Konparazio perpausetan, Euskaltzaindiaren arabera, *baino* hitzak berekin behar du **-ago** atzizkia. Horregatik, ez da egokia gaztelaniaren egitura hitzez hitz kalkatzea eta baino erabiltzea **-ago** gabe. Beraz, bi elementu alderatzen direnean, **-ago ... baino** egitura erabili behar da.



Egin kontu!

EUSKARAZ BAI, BAINA NOLA?

Zuen laguntza behar dugu Egin kontu! atala elikatzeko. Inguruan ikusten dituzuen kartel, mezu, idatziak... bidali eta egoki nola idatzi behar diren azalduko dugu. Noski, jatorria eta egilea isilpean mantenduko ditugu, helburua akatsetatik ikastea da eta!



LEHENTASUNEZKO ≠ LEHENTASUNA

Zain dezagun euskara!